

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

1681

EBAZPENA, 2026ko apirilaren 17koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Lanbideko lanpostuak betetzeko prozesuaren deialdia egiten baita, adjudikaziodunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoko langile lan-kontratudun gisa integratzeko, eta prozesuaren oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzen baitira.

Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legeak Lanbide zuzenbide pribatuko ente publiko bilakarazi zuen. Horrek honako hau dakar, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 44.6 artikulua araberak: «Dagokion sortze-legeak kontrakoa esaten ez badu, langile lan-kontratudun izango dira zuzenbide pribatuaren mendeko ente publikoen zerbitzuko langileak [...]; nolahi ere, funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak izango dira, beti, agintaritza edo ahal publikoak baliatzea dakartenak».

Ondorioz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituen apirilaren 29ko 93/2025 Dekretuaren bidez, konpromisoa hartu zen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren lehen lanpostu-zerrenda onartzeko lanak egiteko, dekretuaren indarraldiaren lehen urtean (2025eko ekainaren 1ean jarri zen indarrean).

Gauzak horrela, deialdiko lanpostu hutsek, ahalmen publikoak baliatzea ez dakartenek, lehen aipatutako lanpostu-zerrenda aldatzeko prozesuaren xede izaten ari dira.

Lanpostu horiek, gaur egun, bitarteko funtzionarioek betetzen dituzte, eta, Lanbideren antolamendu-eraldaketa gertatu ez balitz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak betetzeko deialdiaren xede izango ziratekeen, dagokien lan-eskaintza publikoan sartu aurretik.

Era berean, kontuan hartu behar da ezen, lanpostu horiek lan-kontratudunentzat gordetako lanpostutzat jotzen dituen lanpostuen zerrendaren onarpena atzeratuz gero, behin-behinekotasun luzeko egoerak sor daitezkeela lanpostu horiek betetzeko orduan, eta, ondorioz, zerbitzuaren antolaketa egokiari eta gaur egun lanpostu horiek betetzen dituzten langileen egonkortasunari eragiteko arriskua egon daitekeela, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 10. artikuluan aurreikusitakoaren esparruan.

Horregatik guztiagatik, lanpostuak betetzeko prozesu honen deialdia egiten da, eta jasota uzten da, deialdiaren xede diren lanpostuei gaur egun esleitutako eginkizunen araberak, lanpostu horiek ez dakartela ahal publikoak baliatzea enplegu publikoaren araudiak eskatutako baldintzetan.

Izaera funtzional horrekin bat etorritik, langileak antolatzeko tresna horretan deialdiko lanpostuak langile lan-kontratudunen lanpostu gisa konfiguratzeko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoan.

Testuinguru horretan, prozesu honetan parte hartzen duten funtzionarioek berariaz baliatu beharko dute, plazak adjudikatzeko eskaerarekin batera, Lanbiden langile lan-kontratudun gisa integratzeko aukera, Enpleguaren Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa.

2026ko apirilaren 23a, osteguna

Adjudikaziodunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publiko langile lan-kontratudunen plantillan sartuko dira; EAEko Administrazio Orokorrean aitortuta duten antzintasuna aitortuko zaie ondorio guztietarako, eta, azken horretan, interes partikularragatik borondatezko eszedentziaren administrazio-egoeran geratuko dira.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuen 14.1.h) eta 28.1.b) artikuluetan ezarritakoaren arabera, erakundearen zuzendari nagusia da prozesu honen deialdia egiteko organo eskuduna.

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lanpostuak betetzeko prozesuaren deialdia egitea, adjudikaziodunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publiko langile lan-kontratudun gisa integratzeko, eta prozesuko oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea. Oinarri horiek ebazpen honen eranskinean jasota daude.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote organo berberari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezakete zuzenean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 17a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.

ERANSKINA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKOAN LANPOSTUAK BETETZEKO ETA LANGILE LAN-KONTRATUDUN GISA INTEGRATZEKO OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK

Lehenengoa.– Xedea.

1.– Oinarri hauen xedea da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoan (aurrerantzean, Lanbide) lanpostuak betetzeko prozesua erregulatzeko arauak ezartzea. Horren barruan sartzan da adjudikaziodunak langile lan-kontratudun bihurtzea, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletako funtzionarioentzat gordetako lanpostuei dagokienez.

2.– Prozesu honetan lanpostu bat behin betiko adjudikatzen bada, adjudikazioduna nahitaez sartuko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan langile lan-kontratudun finko gisa, dagokion lan-kontratua formalizatu ondoren, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.– Deialdi bakoitzeko lanpostuak.

Deialdiaren xede diren lanpostuak I. eranskinean identifikatutako lanpostu hutsak dira, zeinak gaur egun funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak baitira, eta prozesu honetan integratzen dira langile lan-kontratudun gisa hornitzeko eta integratzeko, lanpostuen zerrendan dagokion alda-keta egitea onartu ondoren.

Hirugarrena.– Betekizunak eta merezimenduak betetzeko epea.

Deialdi honetan eskatutako betekizun guztiak eta merezimenduak beteta izan beharko dira deialdia argitaratzen den egunean, eta adjudikatutako lanpostuaz jabetu arte eutsi beharko zaie, salbu eta dagokion elkargo profesionaleko kide izatearen betekizuna, zeina kontratua sinatzen den unean egiaztatu beharko baita.

Laugarrena.– Parte-hartzaileak.

Hauek hartu ahal izango dute parte, beren borondatez, lanpostuak betetzeko eta lan-kontratudun bihurtzeko prozesu honetan, baldin eta oinarri hauetan ezarritako betekizun orokorrak eta deitutako lanpostuei dagokienez lanpostu-zerrendan jasotako betekizun espezifikoak betetzen badituzte:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioek, baldin eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren 2025eko maiatzaren 21eko Aginduan zerrendatuta badaude Lanbideko lanpostu baten titular gisa edo lanpostu bat gordetzeko eskubidea dutela.

– Ondorengo hautaketa- edo hornidura-prozesuen bidez, Lanbideko lanpostu bat eskuratu duten edo Lanbideko lanpostu bat gordeta duten karrerako funtzionarioek.

– Deialdiko lanpostuetarako ezarritako baldintzak betetzen dituzten Lanbideko langile lan-kontratudun finkoek.

Bosgarrena.– Argitalpenak eta jakinarazpenak.

Lanpostuak betetzeko eta lan-kontratudun bihurtzeko prozesuen deialdia, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ez ezik, Lanbideren webgunean ere argitaratuko da: <https://www.lanbide.euskadi.eus>

Prozesuan zehar, aipatutako helbide elektronikoetan argitaratuko da prozesuaren garapeneren alderdiekin lotutako informazio guztia, jakinarazpen-ondorioetarako. Argitalpen bakoitzarekin, mugikorraren zenbakia edo helbide elektronikoa eman duten parte-hartzaileei abisu bat bidaliko zaie, SMS edo posta elektronikoz bidez. Abisu hori egiten ez bada ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.6 artikuluan.

Seigarrena.– Eskabidea betetzeko modua.

1.– Lanpostuak betetzeko eta lan-kontratudun bihurtzeko prozesuan parte hartzeko, zazpigarren oinarrian adierazitako lekuetan eskuragarri dagoen eskabide elektronikoa bete beharko da.

2.– Karrerako funtzionario izan eta eskala bat baino gehiagokoak direnek eskabide bakarra aurkeztuko beharko dute, eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean zerbitzu aktiboan dauden eskalatik aurkeztuko dira prozesura.

3.– Eskabidean, deialdian eskainitako nahi beste lanpostu sartu ahal izango dituzte beren lehentasunen arabera, betiere lanpostu horietarako eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte, bereziki titulazioari dagozkionak eta langile lan-kontratudunen lanpostuetarako aurreikusitako gainerako baldintzak.

4.– Lanpostua esleitzeak berekin ekarriko du, nolana ere, adjudikazioduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoko langile lan-kontratudun gisa integratzea.

5.– Eskatzaileek hartu-agiri bat lortu beharko dute, eta interesdunek egoera egiaztatu beharko dute. «Itxita» egoeran dauden eskaerak bakarrik onartuko dira.

6.– Inskripzio-prozesuan intzidentzia teknikoren bat gertatuz gero, zazpigarren oinarrian adierazitako lekuetan horretarako adieraziko den telefonora edo helbide elektronikora jo ahal izango dute.

7.– Alegatutzat joko dira Langileen erregistroan jasotako merezimendu guztiak, zeinak eskabidean ikusi ahal izango baitituzte parte-hartzaileek.

8.– Langileen erregistroan jaso gabe dauden merezimenduak espresuki alegatu beharko dira. Horretarako, egiaztagiriarren kopia bat erantsi beharko dute, Lanbideko Administrazio eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari zuzendua, «Lehiaketa» hitza adieraziz.

9.– Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu beharko dira agiri horiek. Agiriren bat beste hizkuntza batean idatzita badago, agiriarekin batera, haren zinpeko itzulpena erantsi beharko da.

Zazpigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

Lanpostuak betetzeko eta lan-kontratudun bihurtzeko prozesuan parte hartzeko eskabideak oinarri hauek argitaratu eta hamabost eguneko epean aurkeztuko dira.

Eskaera aurkezteko epea 2026ko apirilaren 24an hasi eta 2026ko maiatzaren 18ko 23:59an amaituko da.

Epe hori amaitu ondoren, ez da onartuko eskaeretan eta alegatutako merezimenduetan aldataririk egitea.

Zortzigarrena.– Eskabide baldintzatuak.

Baliteke, familiako elkarbizitza-arrazoiak direla eta, bi pertsonak lanpostuak lortu nahi izatea lehiaketa berean, herri berean edo hurbileko herrietan; halakoetan, eskabideetan, baldintza gisa adierazi ahal izango dute lanpostua biek hala biek lortu beharra, eta, hala ez bada, dena delako herriko lanpostuetarako egin dituzten eskabide biak indarrrik gabe geratuko dira.

Bederatzigarrena.– Baloratuko diren merezimenduak.

Oinarri hauen II. eta III. eranskinetan zehaztuko dira baloratuko diren merezimenduak eta baremoa.

Alderdi hauek baloratuko dira: esperientzia, titulazioak, hobekuntza-ikastaroak, euskararen eza-gutza-maila, ingelesa, frantsesa eta alemana jakitea –dagokion lanpostua betetzeko eskakizuna ez bada–, gradu pertsonal finkatua, eta antzintasuna.

Oinarri espezifikoek zehaztu ahal izango duten zein den lanpostuak adjudikatzeko behar den gutxieneko balorazioa.

Hamargarrena.– Merezimenduak baloratzeko irizpide orokorrak.

Merezimenduak baloratzeko, bi irizpide hartuko dira kontuan: lanpostuarekiko lotura eta merezimenduaren balio formala.

1.– Lanpostuarekin duen lotura: baloratu beharreko merezimenduaren edukiaren eta lortu nahi den lanpostuak dituen eginkizunen artean loturaren bat dagoenean baloratuko dira merezimenduak. Lotura-maila egiaztatu den merezimenduaren eta lortu nahi den lanpostuaren jakintza-arlo eta -esparruen artean dagoen harremanaren arabera izango da. Ez dira baloratuko lortu nahi den lanpostuarekin loturarik ez duten merezimenduak.

2.– Merezimenduaren balio formala.

Hauek dira merezimendu baten balio formala edo garrantzia neurtzeko faktoreak:

a) Titulua bada: graduondokoen ordu kopurua edo kreditu kopurua.

b) Ikastaroa bada: ikastetxea eta ebaluazioa.

3.– Aurreko apartatuko merezimenduei esleitutako bi irizpide horiek –lotura eta balio formala– konbinatuta, honako koefiziente hau aplikatuko da merezimendu jakin baten balorazioan, dagokion baremoaren arabera: Handia (1), Ertaina (0,75), Txikia (0,25) edo ezin da baloratu (0). Lehiaketa bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko diren baremoetan kategoria bakoitzari esleitutako gehieneko balioarekin biderkatuko da koefiziente hori.

4.– Merezimendu bakoitzari balorazio-irizpideak zehazki aplikatzeko modua zazpigarren oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko da.

5.– Ziurtagirietan egiaztapen-lanak egiteko funtsezkotzat jotzen diren alderdi guztiak jasotzen dituzten merezimenduak soilik baloratuko dira.

5.1.– Langileen Erregistroan jasota ez dauden tituluak alegatu egin beharko dira, eta Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsulta eginez egiaztatuko dira horiek.

Titulu ofizialak eta atzerriko tituluak homologatzeko ziurtagiriak Hezkuntza Ministerioak edo unibertsitateetako errektoreek egin behar dituzte.

Unibertsitateetako graduondoko berezko tituluak egiaztatzeko, unibertsitateko errektoreak egingako diplomak aurkeztu beharko dira. Horietan, gainera, berariaz jaso behar da zenbat ordu edo kreditu egin diren.

Goi-mailako gainerako irakaskuntza-programak egiaztatzeko, dagokion erakundeak egindako diplomak aurkeztu beharko dira; eta denetan jaso behar da ikasketa-planak zenbat ordu edo kreditu izan dituen.

Araututako lanbide baten lanbide-prestakuntza aitortzen duen egiaztagutuna aurkeztu ahal izango da, Europar Batasunaren xedapenen babesean, dagokion titulu akademikoaren egiaztagiraren ordean.

5.2.– Prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroak. Langileen Erregistroan jasota ez dauden ikastaroak alegatu egin beharko dira, eta horiek egiaztatzeko, IVAPi kontsulta egingo zaio, edo ikastaro horiek antolatu edo iragarri dituen organo edo erakundearen kopia konpultsatuaren edo ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dira; funtsezko eduki hau eduki beharko dute egiaztagirik:

- a) Izenburua.
- b) Hasiera- eta amaiera-datak, eta iraupena (orduak).
- c) Ziurtagiria egin duen erakundea.

Hamaikagarrena.– Lehiaketaren kudeaketa.

1.– Lanbideko Administrazio eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari dagokio lanpostuak betetzeko eta lan-kontratudun bihurtzeko prozesuak kudeatzea.

2.– Lanbideko Administrazio eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari, prozesuen kudeatzailea denez, zeregin hauek dagozkio:

Parte hartzeko betekizunak eta adjudikatu beharreko lanpostuetarako baldintza espezifikoak betetzen direla egiaztatzea, eta haien egiaztapena baliozkoa dela frogatzea.

Merezimenduen baremoak aplikatzeko zeregin materialak eta zeregin arautu hutsak egitea. Gradua, antzinasuna, esperientzia, hizkuntzak eta hizkuntza-eskakizuna baloratzea.

Merezimenduen balio formala ezartzea.

Balorazio-batzordeak egindako merezimenduen balorazioa gehitzea.

Deialdiko lanpostuen adjudikazioa proposatzea.

Hamabigarrena.– Balorazio-batzordeak. Izendapena eta osaera.

1.– Balorazio-batzordeari dagokio balorazio-iritzia agertzea eskatzen duten merezimenduak baloratzea, diskrezionalitate teknikoan oinarrituta eta bat etorritik oinarri hauetan ezarritakoarekin.

2.– Prozesuen balorazio-batzordeak bost kidek osatuko dituzte, eta guztiek izango dute hitza eta botoa.

3.– Balorazio-batzorde bakoitza osatuko duten pertsonen izen-abizenak Lanbideren webgunean (<https://www.lanbide.euskadi.eus>) eta EHAAan argitaratuko dira.

4.– Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legean eta urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren bidez onartutako Euskal Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko araudian ezarritako betekizunak eta baldintzak bete beharko dituzte izendatutakoek.

5.– Balorazio-batzordeetako kideek dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte haien zerbitzuagatik, bertaratzeak barne hartuta, bat etorri arlo horretako indarreko araudiarekin.

Halaber, dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte aholkularitza ematen dieten pertsonak.

Hamahirugarrena.– Balorazio-batzordearen jarduketa-arauak.

1.– Balorazio-batzordeak independentzia osoz, diskrezionalitate tekniko eta objektibotasunez jardungo du.

2.– Hargatik eragotzi gabe haren jarduketek duten diskrezionalitate teknikoa, ematen dituen ebazpenek arrazoituak izan beharko dute, lanpostuak betetzeko eta lan-kontratudun bihurtzeko prozesuen arauak eta oinarriak betez.

3.– Balorazio-batzordearen erabakiak lotesleak izango dira Administrazioaren organo guztientzat, hargatik eragotzi gabe erabaki horiek berrikusi hala izatea, administrazio-prozeduraren arloan indarrean den legerian aurreikusitakoaren arabera.

Hamalagarrena.– Onartuen eta baztertuen zerrendak.

1.– Parte-hartzaileen analisia egin ondoren, Lanbideko Administrazio eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko du, ebazpen baten bidez, zazpigarren oinarrian adierazitako lekuan; baztertuen kasuan, orobat adieraziko du zergatik izan diren baztertutak.

2.– Aipatutako ebazpenak hamar egun balioduneko epea ematen du, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, alegazioak egiteko edo parte hartzeko baldintzak egiaztatzean egin diren akatsak zuzentzeko.

Era berean, eta epe berean, parte hartzeko eskaera hasi eta zortzigarren oinarriko 3. apartatuan aurreikusitako gisan bideratu ez zutenek izapide-akatsa zuzendu ahal izango dute.

Ez da inola ere onartuko merezimendu berriak edo lanpostuen betekizun espezifikoak alegatzea. Eskatutako lanpostuetan ere ez da aldaketarik onartuko; hau da, ezin izango dira lanpostuak gehitu edo ezabatu, ezta haien ordena aldatu ere.

3.– Alegazioak eta zuzenketak egiteko epea amaitu eta horiek ebatzi ondoren, Lanbideko Administrazio eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak behin betikotzat joko du onartuen eta baztertuen zerrenda. Zazpigarren oinarrian aurreikusitako lekuetan argitaratuko da ebazpen hori.

Hamabosgarrena.– Merezimenduak baloratzeko zerrendak.

1.– Balorazio-batzordeak merezimenduak baloratu ondoren, Lanbideko Administrazio eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak honako hauek argitaratuko ditu, ebazpen baten bidez, zazpigarren oinarrian adierazitako lekuan:

a) Merezimenduen behin-behineko balorazioa; hor jasoko da onartutako parte-hartzaile bakoitzak zer puntuazio lortu duen baremoaren apartatu bakoitzean, eskatutako lanpostu bakoitzari dagokionez –baldin eta betetzen baditu dena delako lanpostuak lanpostu-zerrendan ezarriak dituen baldintzak–.

b) Merezimenduak eta betekizunak zuzentzeko errekerimendua, behar den kasuetan.

2.– Aipatutako ebazpenak hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, alegazioak egiteko edo merezimenduak eta betekizunak egiaztatzean egin diren akatsak zuzentzeko.

3.– Alegazioak eta zuzenketak egiteko epea amaitu eta horiek ebatzi ondoren, Lanbideko Administrazio eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak ebazpen bat emango du, merezimenduen balorazioa behin betikotzat jotzeko, eta zazpigarren oinarrian adierazitako lekuan argitaratuko da.

Hamaseigarrena.– Lanpostuak adjudikatzeko behin betiko proposamena.

1.– Lanbideko Administrazio eta Zerbitzu Orokorren zuzendariaren ebazpen baten bidez, lanpostuak adjudikatzeko behin-behineko proposamena onartuko da, zeina merezimenduen behin betiko balorazioarekin batera argitaratuko baita.

2.– Lanpostuak adjudikatzeko behin-behineko proposamenak lehiaketako parte-hartzaileei adjudikatutako lanpostuak jasoko ditu, eta, parte hartuta ere, lehiaketan destinoa eskuratu ez zutenei adjudikatutakoak.

3.– Hemeretzigarren eta hogeigarren oinarrietan jasotako irizpideen arabera egingo dira adjudikazioak.

4.– Lanpostuak adjudikatzeko behin-behineko proposamena onartzen duen ebazpenak hamar egun balioduneko epea ezarriko du alegazioak aurkezteko, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe berean, lehiaketan borondatez parte hartzen dutenek parte hartzeari uko egin ahal izango diote lehiaketa osoan. Epe hori amaituta, ez da atzera-egiterik onartuko. Atzera-egiteak eskatutako lanpostu guztiei eragingo die.

Hamazazpigarrena.– Adjudikatzeko baldintza orokorrak.

1.– Lanpostu jakin baten adjudikaziodun izateko, beharrezkoa izango da integrazio-prozesuan behar bezala parte hartu izana eta esleitu beharreko lanposturako eskatutako baldintzak betetzea, oinarri hauetan eta lanpostuen zerrendan aurreikusitakoaren.

2.– Betekizun espezifikoren bat ezarrita duten lanpostuak adjudikatzeko, izangaiek ezinbestez egiaztatu beharko dute betekizun horiek betetzen dituztela.

Hemezortzigarrena.– Parte-hartzaileei lanpostuak adjudikatzeko irizpideak.

1.– Lanpostuak betetzeko prozesuetako parte-hartzaileei irizpide hauen arabera adjudikatuko zaizkie lanpostuak: batetik, lortutako puntuazio osoa –betiere, oinarrietan ezarritako gutxieneko puntuazioa gainditu beharra daukate–, eta, bestetik, parte-hartzaileek eskaerak egiteko erabili duten lehentasun-hurrenkera.

2.– Lehiaketaren amaierako puntuazioan berdinketarik egonez gero, irizpide hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren, berdinketa argitzeko:

– Emakumeei emango zaie lehentasuna, emakumeak % 40 baino gutxiago diren lanpostuetan. Salbuespena izango da beste izangaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuagatiko diskriminaziozkoak ez izanagatik ere, hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

– Baremoaren apartatu bakoitzean lortutako puntuaziorik handiena, han ageri diren hurrenkeraren arabera.

– Azpiapartatu bakoitzean lortutako puntuaziorik handiena, han ageri diren hurrenkeraren arabera.

Bi kasuetan, apartatu bakoitzean kontuan hartuko den puntuazioak ezin izango du gainditu baremoan horietako bakoitzerako ezarrita dagoen gehieneko puntuazioa, ez eta, azpiapartatuen kasuan, haiei dagokien apartatuari gehienez dagokion puntuazioa ere.

- Antzinasun handiena karrerako funtzionario gisa.
- Antzinasun handiena behin betiko azken lanpostuan.
- Antzinasun handiena Administrazioan.

Hemeretzigarrena.– Lanpostuak adjudikatzeko behin betiko proposamena.

Erreklamazioak aztertu eta, hala badagokio, aurkeztutako atzera-egiteak onartu ondoren, Lanbideko Administrazio eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak ebazpena emango du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari lanpostuak adjudikatzeko behin betiko proposamena helarazteko.

Hogeigarrena.– Lanpostuetan integratzea eta lan-kontratu finkoa sinatzea.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Zuzendaritza Nagusiari dagokio deialdiko lanpostuetan integrazioa formalizatzea. Deialdia argitaratzeko erabiltzen den modu bera erabiliko da adjudikazioa argitaratzeko.

2.– Lanpostuak betetzeko prozesuan parte hartzeko baldintzak edo lanpostuaren eskakizun espezifikoak betetzeari utzi dioten pertsonak ezin izango dira lan-plantillan integratu.

3.– Lanpostu batean integratu diren pertsonak dagokion lan-kontratua formalizatu beharko dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko langile lan-kontratudun finko gisa, lanpostuak esleitzeko ebazpenean zehaztutako datan, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Funtzionario adjudikaziodunek, bosgarren xedapen gehigarrian eta oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera, berriaz baliatzen dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko langile lan-kontratudun gisa integratzeko aukera, eta zuzenbide pribatuko ente publikoko langile lan-kontratudunen plantillan sartuko dira, EAEko Administrazio Orokorrean aitortuta duten antzinasuna aitortuta ondorio guztietarako. Aldi berean, interes partikularragatiko borondatezko eszedentzia egoeran azken horretan geratuko da.

Ondorio horietarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Enplegu Publikoaren Zuzendaritzari helaraziko dio behar den dokumentazioa, Enplegu Publikoaren zuzendariak adjudikaziodunen administrazio-egoera aldatzeko ebazpena eman dezan.

4.– Lehiaketaren behin betiko adjudikazioan ezin izango zaio adjudikatutako lanpostuari uko egin, eta ez du eskubiderik emango zerbitzuagatiko kalte-ordainak jasotzeko.

Hogeita batgarrena.– Deialdiko lanpostuen izaera eta izena.

1.– Prozesu honen xede diren lanpostuak I. eranskinean identifikatutako lanpostu hutsei dagozkie, eta, Lanbideren Administrazio Kontseiluak onartutako lanpostu-zerrendaren aldaketaren arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoko langile lan-kontratudunen lanpostuak izango dira.

2.– «Administrari orokorra» eta «Obra eta eraikuntzetako teknikaria» izeneko lanpostuek izen horri eta funtsezko eginkizunei eutsiko diete, hargatik eragotzi gabe lan-arloko araubide juridikora atxikitzea.

3.– Gaur egun «orientatzaile» deitzen diren lanpostuak langile lan-kontratudunen lanpostu gisa eratuko dira; «enpleguko eta enpresetako teknikari» izena hartuko dute, eta lanpostu horren berezko eginkizunak hartuko dituzte beren gain, Lanbideren lanpostuen antolamenduaren arabera.

4.– Prozesu hau deitzeak eta izapidetzeak ez dakar, berez, lanpostuak sortu, eraldatu edo aldatzeko ondorio. Lanpostuak behin betiko esleitzeko, Lanbideren Administrazio Kontseiluak lanpostu-zerrendaren aldaketa onartu beharko du aldez aurretik, bere Estatutuen 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Hogeita bigarrena.– Adjudikazioaren ondorioak eta langile lan-kontratudun gisa integratzea.

1.– Langile lan-kontratudun finko gisa integratzeak berekin ekarriko du, ondorio guztietarako, adjudikaziodunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean karrerako funtzionario gisa aitortuta duen antzintasuna aitortzea.

2.– Integrazioaren ondorioz, adjudikazioduna interes partikularragatiko borondatezko eszedentzian geratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean, lanpostua gorde gabe.

3.– Esleitutako lanpostuari ezin izango zaio uko egin behin betiko esleipen-ebazpena eman ondoren, eta ez du eskubiderik emango inolako kalte-ordainik edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko.

Hogeita hirugarrena.– Lehiaketetako datuak babestea eta kudeatzea.

Datu pertsonalak «Hautaketa-prozesuak» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira, honako hauek behar bezala betetzeko: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datu Babeserako Erregelamendu Orokorra); abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia.

Tratamenduaren arduraduna: Administrazio eta Zerbitzu Zuzendaritza.

Tratamenduaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Enplegu publikora sartzeko prozesuak kudeatzea, eta lekualdatze-lehiaketak eta zerbitzu-eginkizunak kudeatzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko funtzionarioen eta langile lan-kontratudunen lanpostuetan.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren aldi baterako lan-eskaintzen eta aldi baterako langile lan-kontratudunen kontratazioen lan-poltsak kudeatzea (eratzea, integratzea eta barematzea).

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde egindako misio bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzean (11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena).

Informazioaren hartzaileak:

Sindikatuak eta langileen ordezkariak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Eskubideak: datuak irispidean izatea, zuzentzea eta ezerezteak, bai eta informazio gehigarri azaltzen diren beste eskubide batzuk ere. Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultatzeko: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/128100-cap2-eu.shtml>

I. ERANSKINA

DEIALDIKO LANPOSTUAK

Eranskin honetan zerrendatutako lanpostuak, deialdiaren unean, bat datoz gaur egun funtzionarioentzat gordetako lanpostu gisa sailkatuta dauden lanpostuekin.

Lanpostuen behin betiko esleipena egiteko eta adjudikaziodunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoko langile lan-kontratudun gisa integratzeko, aldez aurretik Administrazio Kontseiluak onartu beharko du lanpostu horiek lan-kontratupeko lanpostu bihurtuko dituen lanpostuen zerrendaren aldaketa, hogeita hirugarren eta hogeita laugarren oinarrietan aurreikusitako baldintzetan.

512150/19	Orientatzailea
512150/202	Orientatzailea
512150/203	Orientatzailea
512150/208	Orientatzailea
512150/209	Orientatzailea
512150/213	Orientatzailea
512150/226	Orientatzailea
512150/248	Orientatzailea
520040/578	Administrari orokorra
520040/645	Administrari orokorra
520040/709	Administrari orokorra
520040/712	Administrari orokorra
520040/855	Administrari orokorra
520040/913	Administrari orokorra
520040/926	Administrari orokorra
520040/941	Administrari orokorra
520040/955	Administrari orokorra
520040/956	Administrari orokorra
520040/964	Administrari orokorra
520040/966	Administrari orokorra

II. ERANSKINA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoan administrari orokorraren lanpostuak integratzeko eta lan-kontratudun bihurtzeko prozesuaren oinarri espezifikoak.

Lehenengoa.– Lanpostuak esleitzeko gutxieneko puntuazioa

Gehienez 215 puntu lortu ahal izango dira; lanpostua esleitzeko, gutxienez 11 puntu lortu behar dira.

Bigarrena.– Merezimenduak baloratzeko baremoa.

1.– Administrazio Publikoei atxikitako lanpostuetan izandako lan-esperientzia	
Azken 10 urteotako lan-esperientzia baloratu da, eta gehienez 90 puntu emango dira, baremo honen arabera:	
Eskuratu nahi den lanpostuan bertan izandako lan-esperientzia	0,80 puntu hilabete bakoitzeko.
Lan-esperientzia, eskuratu nahi den lanpostua atxikita dagoen eskaletako bati edo beste administrazio publikoetako parekatutako eskaletako bati atxikitako lanpostuetan:	0,45 puntu hilabete bakoitzeko.
Eskuratu nahi den lanpostua atxikita dagoen taldeari atxikitako lanpostuetan izandako lan-esperientzia	0,08 puntu hilabete bakoitzeko.
<p>1.1.– Aldi berean emandako zerbitzuak ez dira inoiz modu independentean zenbatuko. Horri dagokionez, ez dira zenbatuko eginkizunak behin-behinean esleituta emandako zerbitzuak.</p> <p>1.2.– Zerbitzu berezietan edo seme-alabak zaintzeko edo senideak zaintzeko eszedentzian edo genero-indarkeriagatik edo indarkeria terroristagatik eszedentzian emandako aldiak, azken 10 urteotan denbora gehien bete duten funtzionario-lanpostuan baloratu dira. Funtzionario-lanposturik izan ez dutenei titular gisa erreserbatuta duten lanpostuaren arabera egingo zaie balorazioa. Lanpostu baten titular ez direnei, aldiz, bete duten azken lanpostuaren eginkizunen arabera egingo zaie balorazioa.</p> <p>1.3.– Betetzen duten lanpostuko lan-esperientzia gisa zenbatuko dira zeregin hauetan emandako aldiak: prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroak, euskararen ikaskuntza, norberaren gauzetarako baimenak, aldi baterako ezintasuna edo parekatutako egoerak.</p> <p>1.4.– Norberari dagokion taldeko edo goragoko talde bateko beste kidego bateko lanpostuetan zerbitzu-eginkizunetan emandako aldiak titulartasuneko lanpostuan zenbatuko dira; Lanpostu baten titular ez direnei, aldiz, norberari dagokion kidegoan bete duten azken lanpostuaren eginkizunen arabera egingo zaie balorazioa.</p> <p>1.5.– Goi-kargudunaren idazkari-lanpostu baten titular gisa (520010) eginiko aldiak administrari orokorraren lanpostuan (520040) zenbatuko dira.</p>	

2.– Titulu akademikoak	
Unibertsitateen edo ospe handiko erakundeen titulu akademiko ofizialak edo berezko tituluak baloratzeko, bete nahi den lanpostuaren eginkizunekiko lotura hartuko da kontuan, eta gehienez 30 puntu emango dira, baremo honen arabera:	
Lanbide Heziketako Goi-mailako Teknikariaren tituluak	gehienez 20 puntu titulu bakoitzeko.
Lanbide Heziketako Teknikariaren tituluak	gehienez 10 puntu titulu bakoitzeko.
Doktoretza, graduondokoa, gradua, lizentzia, arkitektura, ingeniari-tza, diplomatura, arkitektura teknikoa edo ingeniari-tza teknikoa	gehienez 5 puntu titulu bakoitzeko.

2.– Titulu akademikoak

2.1.– Baldin eta titulu-azpitalde desberdinetako eskaletako lehiakideek dotazio bera eskatzen badute, beheko taldeko langileei ez zaizkie merezimendu gisa baloratuko goragoko kidego edo eskalan sartzeko eskatzen diren titulu ofizialak.

2.2.– Irakaskuntza akademiko bereko ziklo desberdinak gainditu dituztela frogatzen duten langileei soilik baloratuko zaie frogatutako zikloetatik gorengoari dagokion titulua.

2.3.– Ez da merezimendu gisa baloratuko lanpostuan eskatzen den goi-mailako titulua lortzeko behar den titulua. Eta ez dira baloratuko, halaber, dagoeneko baloratu direlako edo betekizun gisa eskatu direlako, administrazio honek baliokidetzat jotzen dituen titulazioak.

3.– Hobekuntza-ikastaroak

Deialdiko lanpostuari lotutako gaien inguruko hobekuntza-ikastaroak gaindituta izateagatik, gehienez 40 puntu emango dira, baremo honen arabera:

50 eta 79 eskola-ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak	gehienez 20 puntu ikastaro bakoitzeko.
80 eta 149 eskola-ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak	gehienez 25 puntu ikastaro bakoitzeko.
150 eskola-orduko edo gehiagoko iraupena duten ikastaroak	gehienez 30 puntu ikastaro bakoitzeko.

3.1.– Hobekuntza-ikastaroak Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak edo unibertsitate edo administrazio publikoek antolatutakoak eta homologatutakoak izan behar dira, edo, bestela, trebakuntzaren, giza baliabideen garapenaren, lanbide-prestakuntzaren edo ikerketaren esparruetan ospe handia duten erakundeek emandakoak.

3.2.– Azken 10 urteotan egindako ikastaroak bakarrik baloratuko dira; baina, salbuespen gisa, 150 ordukoak edo hortik gorakoak ere onartuko dira, eta noiz egin diren kontuan hartu gabe baloratuko dira.

3.3.– Iraupena kreditutan ematen bada, kreditu bakoitzak 10 orduko baliokidetzat izango du, beste zehaztasunik ematen ez bada behintzat. ECTS kreditu bakoitzak, aldiz, 25 orduko baliokidetzat izango du.

3.4.– Gai berari buruzko ikastaroak edo ikastaro beraren edizio ezberdinak behin bakarrik baloratuko dira; arlo horretan ordu-kopuru handiena duena aukeratuko da horretarako.

3.5.– Konpetentzia-unitateen egiaztapen partzialak eta profesionaltasun-ziurtagiriak ez dira prestakuntza-ikastaro gisa baloratuko.

Halere, profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prestakuntza-unitateak eta prestakuntza-moduluak baloratu ahal izango dira, betiere prestakuntza-ikastaro ziurtatuen bidez lortu badira, dagozkien orduekin.

3.6.– Hizkuntza-ikastaroak ez dira baloratuko.

4.– Euskara jakitea

Euskara jakitea merezimendu gisa baloratuko da derrigortasun-data igarota ez izateagatik betekizuntzat eskatzen ez den lanpostuetan.

Gehienez 22 puntu emango dira, puntuazio honen arabera:

3. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan:	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu. 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu. 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 25 puntu.
2. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan:	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu. 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu.
1. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan:	1., 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu.

4.1.– Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuari (ETZEB) kontsulta eginez egiaztatuko dira euskararen hizkuntza-eskakizunak. Egiaztatutzat joko dira deialdiaren argitaratze-eguneko egiaztatze-datarekin edo lehenagokoarekin erregistro horretan inskribatuta dauden hizkuntza-eskakizunak.

4.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako hizkuntza-eskakizunen baliokide diren ziurtagiri eta tituluak dekretu hauetan zehaztuta daude: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko dena.

5.– Gradu pertsonal finkatua	
Parte hartzen den kidegoan edo eskalan gradu pertsonal finkatua izateagatik, gehienez 10 puntu emango dira, banaketa honen arabera:	
Eskatutako lanpostuaren destino-osagarriaren maila bereko edo handiagoko gradu pertsonala izatea	10 puntu.
Eskatutako lanpostuaren destino-osagarriaren maila baino maila pertsonal txikiagoa izatea	7,5 puntu.

6.– Antzinasuna	
Gehienez 10 puntu emango dira	
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek aitortutako antzinasuna, hiru urtekoak osatzeko	0,084 puntu hilabete bakoitzeko.

7.– Hizkuntzak jakitea	
Hizkuntzak jakitea baloratuko da, eta gehienez 10 puntu emango dira, baremo honen arabera:	
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko B1 mailaren tituluak eta ziurtagiri baliokideak	5 puntu.
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko B2, C1 eta C2 mailen tituluak eta ziurtagiri baliokideak	10 puntu.
Honako lege-xedapen hauek maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotako titulu eta ziurtagiriak bakarrik baloratuko dira: 117/2015 Dekretuaren eranskina (117/2015 Dekretua, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetarako tituluen eta hizkuntza-ziurtagiri baliokidetasunari buruzkoa), eta 1041/2017 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, zenbait ikasketen araututako araubide bereziko hizkuntza-ikasketen eta errege-dekretu honetako arteko baliokidetzak oinarritzko izaeraz ezartzen dituena.	

III. ERANSKINA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoan enplegu eta enpresetako teknikari lanpostuak integratzeko eta lan-kontratudun bihurtzeko prozesuaren oinarri espezifikoak.

Lehenengoa.– Lanpostuak esleitzeko gutxieneko puntuazioa.

Gehienez 224 puntu lortu ahal izango dira; lanpostua esleitzeko, gutxienez 20 puntu lortu behar dira.

Bigarregoa.– Merezimenduak baloratzeko baremoa.

1.– Administrazio Publikoei atxikitako lanpostuetan izandako lan-esperientzia	
Azken 10 urteotako lan-esperientzia baloratuko da, eta gehienez 70 puntu emango dira, baremo honen arabera:	
Eskuratu nahi den lanpostuan bertan izandako lan-esperientzia	0,60 puntu hilabete bakoitzeko.
Eskuratu nahi den lanpostuari atxikitako eskalaren bati atxikitako lanpostuetan izandako lan-esperientzia	0,35 puntu hilabete bakoitzeko.
Eskuratu nahi den lanpostuari atxikitako azpitaldeari atxikitako lanpostuetan izandako lan-esperientzia	0,06 puntu hilabete bakoitzeko.
<p>1.1.– Aldi berean emandako zerbitzuak ez dira inoiz modu independentean zenbatuko. Horri dagokionez, ez dira zenbatuko eginkizunak behin-behinean esleituta emandako zerbitzuak.</p> <p>1.2.– Zerbitzu berezietan edo seme-alabak zaintzeko edo senideak zaintzeko eszedentzian edo genero-indarkeriagatik edo indarkeria terroristagatik eszedentzian emandako aldiak, azken 10 urteotan denbora gehien bete duten funtzionario-lanpostuan baloratuko dira. Funtzionario-lanposturik izan ez dutenei titular gisa erreserbatuta duten lanpostuaren arabera egingo zaie balorazioa. Lanpostu baten titular ez direnei, aldiz, bete duten azken lanpostuaren eginkizunen arabera egingo zaie balorazioa.</p> <p>1.3.– Betetzen duten lanpostuko lan-esperientzia gisa zenbatuko dira zeregin hauetan emandako aldiak: prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroak, euskararen ikaskuntza, norberaren gauzetarako baimenak, aldi baterako ezintasuna edo parekatutako egoerak.</p> <p>1.4.– Norberari dagokion taldeko edo goragoko talde bateko beste kidego bateko lanpostuetan zerbitzu-eginkizunetan emandako aldiak titulartasuneko lanpostuan zenbatuko dira; Lanpostu baten titularrak ez badira, aldiz, norberari dagokion eskalan bete duten azken lanpostuaren egitekoen arabera egingo da balorazioa.</p>	

2.– Titulu akademikoak	
Unibertsitateen edo ospe handiko erakundeen titulu akademiko ofizialak edo berezko tituluak baloratzeko, bete nahi den lanpostuaren eginkizunekiko lotura hartuko da kontuan, eta gehienez 50 puntu emango dira, baremo honen arabera:	
Doktoregoa	gehienez 35 puntu titulu bakoitzeko.
Mediku espezialista Mediku espezialista, farmazialaria, farmazialari espezialista, biologo espezialista eta psikologo espezialista	gehienez 35 puntu titulu bakoitzeko.
Graduondokoak. Berezko tituluak eta master ofizialak (30 ECTS baino gehiago)	gehienez 30 puntu titulu bakoitzeko.
Graduondokoak. Aditu espezialistaren tituluak (gehienez 30 ECTS, 750 ordu)	gehienez 25 puntu titulu bakoitzeko.
Gradua, lizentzia, arkitektura, ingeniariaritz, diplomatura, arkitektura teknikoa edo ingeniariaritz teknikoa	gehienez 25 puntu titulu bakoitzeko.

2.– Titulu akademikoak

- 2.1.– Baldin eta titulu-azpitalde desberdinetako eskaletako lehiakideek dotazio bera eskatzen badute, beheko taldeko langileei ez zaizkie merezimendu gisa baloratuko goragoko kidego edo eskalan sartzeko eskatzen diren titulu ofizialak.
- 2.2.– Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.
- 2.3.– Irakaskuntza akademiko bereko ziklo desberdinak gainditu dituztela frogatzen duten langileei soilik baloratuko zaie frogatutako zikloetatik gorengoari dagokion titulua.
- 2.4.– Ez da merezimendu gisa baloratuko lanpostuan eskatzen den goi-mailako titulua lortzeko behar den titulua. Eta ez dira baloratuko, halaber, dagoeneko baloratu direlako edo betekizun gisa eskatu direlako, administrazio honek baliokidetzat jotzen dituen titulazioak.
- 2.5.– Graduondoko titulu gisa baloratu ahal izango dira baldintza hauetakoren bat betetzen dutenak:
- Master ofizialaren maila izatea, eta Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan jasota egotea.
 - Unibertsitateko graduondoko berezko titulua izatea, 450 ordukoa edo denbora luzeagokoa, edo gutxieneko iraupena bermatzen duen kreditu kopurua izatea.
 - Goi mailako irakaskuntza programa baten agiria edo diploma edukitzea, graduondoko unibertsitate irakaskuntzaren parekoa eta ospe handiko erakunde akademiko edo profesional batek (atzerrikoa ere izan daiteke) emandakoa. Graduondoko irakaskuntza mota honen gutxieneko iraupena 450 ordukoa edo gehiagokoa izan behar da.

3.– Hobekuntza-ikastaroak

Deialdiko lanpostuari lotutako gaien inguruko hobekuntza-ikastaroak gaindituta izateagatik, gehienez 40 puntu emango dira, baremo honen arabera:

150 eta 299 eskola-ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak	gehienez 15 puntu ikastaro bakoitzeko.
300 ordu edo gehiagoko ikastaroak	gehienez 20 puntu ikastaro bakoitzeko.

- 3.1.– Hobekuntza-ikastaroak Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak edo unibertsitate edo administrazio publikoek antolatutakoak eta homologatutakoak izan behar dira, edo, bestela, trebakuntzaren, giza baliabideen garapenaren, lanbide-prestakuntzaren edo ikerketaren esparruetan ospe handia duten erakundeek emandakoak.
- 3.2.– Azken 10 urteotan egindako ikastaroak bakarrik baloratuko dira; baina, salbuespen gisa, 150 ordukoak edo hortik gorakoak ere onartuko dira, eta noiz egin diren kontuan hartu gabe baloratuko dira.
- 3.3.– Iraupena kreditutan ematen bada, kreditu bakoitzak 10 orduko baliokidetzaz izango du, beste zehaztasunik ematen ez bada behintzat. ECTS kreditu bakoitzak, aldiz, 25 orduko baliokidetzaz izango du.
- 3.4.– Bulegotikako eta Interneteko programei buruzko ikastaroak ez dira baloratuko.
- 3.5.– Gai berari buruzko ikastaroak edo ikastaro beraren edizio ezberdinak behin bakarrik baloratuko dira; arlo horretan ordu-kopuru handiena duena aukeratu da horretarako.
- 3.6.– Konpetentzia-unitateen egiaztapen partzialak eta profesionaltasun-ziurtagiriak ez dira prestakuntza-ikastaro gisa baloratuko.
- Halere, profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prestakuntza-unitateak eta prestakuntza-moduluak baloratu ahal izango dira, betiere prestakuntza-ikastaro ziurtatuen bidez lortu badira, dagozkien orduekin.
- 3.7.– Doktoitzako ikastaroak eta unibertsitateko titulua eskuratzeko aukera ematen dutenak hobekuntza-ikastaro gisa balora daitezke, aurreko atalen baten baloratu ez badira.
- 3.8.– Hizkuntza-ikastaroak ez dira baloratuko.

2026ko apirilaren 23a, osteguna

4.– Euskara jakitea	
Euskara jakitea merezimendu gisa baloratuko da derrigortasun-data igarota ez izateagatik betekizuntzat eskatzen ez den lanpostuetan. Gehienez 24 puntu emango dira, puntuazio honen arabera:	
4. hizkuntza-eskakizuna (C2) duten lanpostuetan:	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 10 puntu. 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu. 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 25 puntu. 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 34 puntu.
3. hizkuntza-eskakizuna (C1) duten lanpostuetan:	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu. 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu. 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 25 puntu.
2. hizkuntza-eskakizuna (B2) duten lanpostuetan:	1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu. 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 17 puntu.
1. hizkuntza-eskakizuna (B1) duten lanpostuetan:	1., 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu.
5.1.– Euskara Tituluaren eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuari (ETZEB) kontsulta eginez egiaztatuko dira euskararen hizkuntza-eskakizunak. Egiaztatutzat joko dira deialdiaren argitaratze-eguneko egiaztatze-datarekin edo lehenagokoarekin erregistro horretan inskribatuta dauden hizkuntza-eskakizunak. 5.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako hizkuntza-eskakizunen baliokide diren ziurtagiri eta tituluak dekretu hauek zehaztuta daude: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko dena.	

5.– Gradu pertsonal finkatua	
Parte hartzen den eskalan gradu pertsonal finkatua izateagatik, gehienez 10 puntu emango dira, banaketa honen arabera:	
Eskatutako lanpostuaren destino-osagarriaren maila bereko edo handiagoko gradu pertsonala izatea	10 puntu.
Eskatutako lanpostuaren destino-osagarriaren maila baino maila pertsonal txikiagoa izatea	5 puntu.

6.– Antzintasuna	
Gehienez 10 puntu lor daitezke:	
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren organismo autonomoek aitortutako antzintasuna, hiru urtekoak osatzeko	0,084 puntu hilabete bakoitzeko.

7.– Hizkuntzak jakitea	
Hizkuntzak jakitea baloratuko da, eta gehienez 10 puntu emango dira, baremo honen arabera:	
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko B2 mailaren tituluak eta ziurtagiri baliokideak	5 puntu.
Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko C1 eta C2 mailen tituluak eta ziurtagiri baliokideak	10 puntu.
<p>Honako lege-xedapen hauetan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotako titulu eta ziurtagiriak bakarrik baloratuko dira: 117/2015 Dekretuaren eranskina (117/2015 Dekretua, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetarako tituluen eta hizkuntza-ziurtagirien baliokidetasunari buruzkoa), eta 1041/2017 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, zenbait ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-ikasketen eta errege-dekretu honetako arteko baliokidetzak oinarrizko izaeraz ezartzen dituena.</p>	